

CARRASCOLIENDAS

Enkarterriko **herri inauteriak**

ziren, Barakaldo, Trapagaran, Ortuella, Sodupe, Gueñes, eta Gordexolan ospatzen zituztenak eta XXI. mendearen hasieran bertako gazteek berreskuratukoak.

HISTORIA

Ostegun gizenaz aritzen ziren **Carrascoliendas kantua** kantatuz, **janari eskean**, etxez etxe. **Oilar beltz bat eskuan**, kantuek oilar beltzaren historia zuen ardatz. Sarri momentuko kontu sozial, auzoko **arazo** edo **gai politikoez** ere aritzen ziren kopletan. Urioste auzoan mozorrotu egiten ziren. Trapagaranen ordea ez. Trapagaranen igande edo asteartez mozorrotzen ziren. Askotan **gizonak emakumez** eta **emakumeak gizonaz**.

Hona hemen orduko koplak bat:

Ya llegaron las carrascoliendas,
señoras mujeres es lo que se estila.
Los niños de la escuela
recogen forrajes para sus comidas.
Huevos y chorizos, longaniza frita
y otros arrendajos que en la casa había

1920. urtera arte urtero ospatzen zuten, hortik aurrera poliki-poliki ohitura ahulduz joan zen frankismoan debekatu eta guztiz desagertu zen arte. **2011an**, Trapagako **Basetxe Gaztetxeak** inauteri hauek **berreskuratu eta eguneratu ditu**.

CARRASCOLIENDAS BERRIAK

Larunbatean irtengo dira carrascoliendas kantuek berriz kalera. Orain ordea kantuek gain dantza berri batekin ere irtengo gara. Trapagarango inauteri dantza sortu dugu. Dantza erreza egitea izan da helburu, dantzari ez den jendeak dantzatzeko modukoa. Nafarroako inauteri herrikoietatik abiatuz Arantzako inauteria zein Lantzeko zortzikoko pausuak gure dantzaren parte bihurtu ditugu. Kantu zaharra kantatuko dugu. Amaitzeko herriko bertsolariak kopletan arituko dira auzoko urteko kontuek zein arazoak aipatuz. Bertsolariekin euskara sartu da gure inauterian, euskara aspaldi galdu baitzen gurean eta beraz gure zaharrek ez baitute euskaraz kantu edo hitz egin zenik oroitzen. Orain ordea gazte guztiak gara euskaldun, bertsolariak ere baditugu geurean eta euskaraz egin nahi dugu geroa.

AUZOAK

Ez gara eskean arituko. Santa Agedan egiten da gure herrian etxez etxeko eskea. Auzoz auzo goazela ordea, auzo elkarte eta auzoetako bizilagunek eskainitako puskekin beteko ditugu sabelak. Ez dira baserri gune txiki, zelai berde eta teilatu gorriak. Industri gune erdian isolatutako langile auzoak. Txaranga batekin ibiliko gara auzoz auzo, dantza, kantu, bertso, jan eta edanean. Elkar harremanean. Ensaio orokorreen, herriko plazan, 100 lagun elkartu ginen. Zahar eta gazte, guraso eta haur. Beraz badatoz berriro LAS CARRASCOLIENDAS gurera. Zaharrei entzuten ikasi duguna berreskuratzen.